

## IRITZIA

## » zuzendariari

BERRIAk irakurleen eskutitzak plazaratzen ditu. Tarte bikoitzera idatzitako orrialde batean kabitu behar dute, eta BERRIAk mozteko eskubidea du. Helbide honetara bidali behar dira, izen eta herria adierazita: BERRIA, Martin Ugalde Kultur Parkea, 30012 Andoain. [iritzia@berria.info](mailto:iritzia@berria.info)

## Txillardegiri Argizaiola

Zer esan? Ni argira jaio aurretik, gerora liburuetan eta etxean eta Durangoko Andre Mariako elizpe monumentalean jakin eta entzun dudanez, gerra osteko ilunaldi hartan baziren argizari batzuk pizturik. *Gara* eta *Kresala* irakurriak nituen eta Joanak-joanekin aurkitu ginenean Uztiko semea eta biok «horko aditz jokoak menderatzen badizkiagu euskara aberatsaren jabe izango gaituk...» elkarriz esan geniola gomuta daukat. Apurka-apurka gure literaturaren ezaupidean urratsak emanez nindoan. *Zeruko-Argia-n Larresoro*-ren artikulua gustuko zitzaizkidan baina berandu batean jakin izan nuen, beno, hemezortzi urte nituela jakin izan nuen nire *Larresoro* horrek *Txillardeg* gatzizenez nobela bi bazituela argitaraturik: *Leturaren egunkari ezkutua* eta *Peru Leartzako*. Komentu hartan liburu horienganako zentsura izango ote zen? Ez dakit, baina *Zeruko-Argia* jasotzen genuen, baita ere *Oleri Aita Santik* argitaratzen zuena eta hemen deskubritu nuen besteak beste Gabriel Aresti.

Bada, 1969an Andre Mariako elizpean, Domusantuetan, Euskal Liburu eta Disko egunetan eta gazte

honi Gabrielen esanetan: «...inork ez dio argitaratu nahi *Elsa Schelen* nobela hau Txillardegiri eta nik guztiz kontrako ideologia izan arren begira...».

Gogotsu eta temati «euskaldunak bagara, zergatik ez dugu egiten euskaraz? Zergatik ez dugu idazten euskaraz, nobelak, olerkiak, hunkatzen eta hartaz, politikaz, erlijioaz...».

Txillardegiri, ai Joxe Luis! Gizon politikotzat edo politikagizona lez ezagutzen zaituzte askok baina politikoa baino gehiago *bihotza* zara, *bihotzberoa*. Ez alferrik zure gramatikak, aditzak, fonologiak, azentuak, soziolinguistikak. Euskara, euskara izan duzu ardatz zure ibilbide luze honetan. Euskara izan da ezein gainetik bizturik izan duzun suzia. Euskaratik sufritu duzu, euskararenganako nagieriak min ematen dizu auzoko ideologi lerroetan baina zure inguruan gaur ere aspaldixe bezain zorrotza duzu zure luma.

Geroari, orainari argia eman nahian, ezkoa eginez, ez zeure atseginez baizik eta aberri-minez. Euskararen lokarriak ere nekez elkarrazten gaituen gizarte honetan esker onez txalo eta goramen hitzok nahi dituz zuretzat. Nik neure ibilbidetik eta beharbada beste batzuk ere egon daitezke antzerako

edo bestelako esperientziakin. Euskaldunok bidean argi-egile, argi-emaile zaitugun aldetik badugu zugarako...

Txillardegiri, harako «...zaudete prest, jantziak loturik eta krisieiluak pizturik...» (Lk. 12-35) pasarteko esanaren jarraitzaile tinko eta sursu zaitugu. Euskararen Krisieilua pizturik irararazten saiatu zarela Gerediaga Elkarteak Euskal Liburu eta Disko Azokaren egun hauetan merezimenduz Argizaiola eskaini, eman dizu, behar dugun argizari eta argia ahitu ez daitez!

Antton Mari Aldekoa-Otalora  
Iurreta

## Amezketako eskola hamar hilabetez Internetik gabe

2004ko otsailaren 10az geroztik Interneterako konexiorik gabe dago ikastetxe hau. Pilota elkarriz ederki pasa, hamaika konponbide agindu, hitz polit ugari esan, baina ezer konpondu ez. Horixe jaso dugu bitarte honetan Gasteizko Hezkuntza Saitetik eta Donostiako Ordezkaritzatik. Hori eskaini digute behin eta berri beren enpresak gorai patzen hain iaioak diren Euskaltelek eta Telefonikak.

Nahiko zintzo jokatu dugu orain arte, zintzoegi agian; konfiantza izan da emandako hitzean, eta pazientzia handia erakutsi da ikastetxearen aldetik. Baina, gaur, ahaztuak, baztertuak eta engainatuak sentitzen gara. Posta elektronikotik datorren hainbat eta hainbat informazio jaso gabe gaudenean (Hezkuntza Sailak bide hori erabiltzen du informazioa igortzeko), Hezkuntza Saileko lanak herriko KZgunetik edo etxetik betetzen ari garenean, edozein ikasle eskura dezakeen informazioa guretzat ezinezko denean, aho bateko esaldiak guretzat ustelak eta faltsuak direnean, ezin gara isilik geratu.

Hainbat proiektutan parte hartzeko aukera galdu dugu. Amezketako haldura eta eskola baztertua daudela jakin dezazuen jo dugu hedabideetara, eta hementik aurrera, arazoa konpondu bitartean, horrela hasi eta beste erremedioren ez dugu, edo beste bide desatsegin batzuk jorratuko ditugu, ez baitugu zakurraren ipurdia izan nahi. Amezketako eskolak merezi du. Gure ikasleek eta seme-alabek merezi dute.

Lurdes Larreta Amondarain  
Amezketako Zumardi eskolako Ordezkaritza Organo Gorenaren izenean

## » larrepetit

## Trukutzak truku



NAGORE AMONDARAIN

Harriak bota dituzte leihotik. Kaleko txoriak harrapatzeko nahia rekin kaleak harriz bete dira eta txoriek jakin dute zelan alde egin inbasioetik. Itxuraz, hain gogaikarria dirudien kantua amatzeko asmoz harrika eraso diete beriko doinuei. Harriak bota dituzte leihotik kaleko faroletako argia itzali eta gauean lasai lo egiteko, benerako ilunpean eta inork gauren beldurra moztortu barik.

Kaleko hezetanunak edadekoiei sortzen dien segurtasun ezak ere ez ditu inbeldu atso eta agureak. Harri piloak bazterrean ikusi eta aitona amonak aterpe edo lehor bat egiten hasi dira. Lur tinkoan etxe bat sortu dute umore onean, inoren haseretzat ohar barik, eta borondate onenarekin atek zabalik utzi. Apurruatik farolak tiriatik pegatuz konpondu dituzte agureek eta sukaldako sua ordezkatu du farolaren argi epelek. Txoriak bertara sartu dira, beriko kantua ekarri dute aitona amonaren bilgunera. Eta han agertu dira hiruko. La galtzearen egon diren doinuek eta sutondoko argi epele berreskuratu dute gure aite amak, tradizioz eta borondate onez.

Hiru Trukuek, beste baten hitzak gogora ekarritzen, esan dute tradizioz ez dela berez etorri eta agertzen, tradizioz bilatu eta berreskuratu egin behar dela. Horretarako ezin gara etxeko harriak leihotik botatzen hasi eta adreilu berriekin etxek sortu. Guk Hiru Trukuren *izar ederrak* amamaren ahotsean eta doinuean ezagutu eta ikasi genuen, eta gero lilluratu gintuen hirukoteak. Inguruan ditugunek ematen ditugunetik ahalik eta gehien eraihi behar dugu, kalean ematen dena aintzat hartzeko. Tradizioz eraihi ditugu gortorleku berriak.

## » galde-eskeak



AGUSTIN UNZURRUNZAGA  
SOS ARRAZAKERIA  
TALDEKO KIDEA

Euskal Herriko hiru gune administratiboetan etorkinekin dauden politikak edo jarretan alderik ikusten duzu?

Haritz Zubiaurre

Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroan lege beraren menpe gaude, Atzeritarren Legearen eta bere araudiaren menpe. Lege bera denez, orokorrean, ez dago alderik. Hala eta guztiz ere, batzuetan, praktika administratiboak ez dira berdinak izaten: erantzunak jasotzeko epeak, eskatzen zaien dokumentazioa, lan baimenak berritzeko eskatzen zaien kotizazio kopurua... Hori guztia, lurralde bakoitzeko Gobernuaren Ordezkariordeztaren eta Lan eta Gizarte Gaietarako Bulegoen arabera. Iparraldean Frantziako lege eta araudiaren menpe gaude, Hegoaldekoekin zeri-kusi gutxi dutenak, nahiz eta gauza batzuk antzekoak izan: bisak, lan baimenak, erresidientzia baimenak, kanporaketak, atxilotze egoitza bereziak...

Abenduaren 14tik aurrera, Victor Alexandre kazetari eta idazle katalana izango da Galde-eskeak ataleko gonbidatua. Bidali zure galderak [iritzia@berria.info](mailto:iritzia@berria.info) helbide elektronikora.

## » www.berria.info

Pasaiaiko kanpo portua egitearen aldekoa zara?

BAI	% 61
EZ	% 39

Superportua zertarako? Gure herria eta natura suntsitzeko? Edo batzuen poltsikoak ongi betetzeko? Ezin da horrelako suntsikeriarik onartu. **Arrate**

Pasaian urteetan izugarritzako kalteak jasan ditugu. Onurak, berriz, enpresaburuen eta abarren poltsikoetan gelditu dira soilik. Guretzat gelditu dena zera izan da: zikinkeria, kutsadura eta abar. Horrenbesteko aberastasuna sortzen omen duen kaiak, adibidez, udal zergarik ordaintzen duenik ere ez dut uste. Garapen ekonomikorik ez du ekarriko portu horrek, eta kokapenik aproposena kanpoaldea baldin bada, Pasaiaiko zein Donostiako pasealeku berriak dira egokiak. Zergatik ez hor jarri? **Rikardo Arrillaga**

## » hitz beste

## Alfertasunaz

ANJEL LERTXUNDI

Espainiako erregeak, Arrasaten. Protestak, enpresa eraginkorrenen herrialdean. Tebistako irudirik ikusten ari nintzela, begiak bildu, eta manifestariak irudikatu nituen Corinne Maier ekonomilaria eta psikoanalistaren *Egun on, alfertasuna* liburu bana besapean zutela. Enpresa batean lan egitearen miseria dardardatzen liburuak, artaldekeria korporatiboaren kontrako alegatu bat da. Alfertasunak gizatiarrago egiten omen gaitu, dio Corinne: egizu lan-itxura, baina lanik ez; alferria izatea, hori da gizakiaren bizitza-asmorik bikainena. Goi exekutiboek ere, beste nonbaiten diru gehiago eskaini orduko, alde egiten ez dute ba ipurdia galdu beharreen? Zergatik sinetsi behar duzu zuk enpresan? Hilaren bukaeran kobratzea, hori da ziurtatu behar duzuna...

Begiak zabaldu nituen. Erregea lehen harria jartzen ari zen, langile-langile, Garaia Berrikutza Poloaan...